

## 17/03 IRIZPENA

Isabel Kapanaga, jarduneko  
presidentea  
Xabier Aizpurua  
Amaia Jauregiberri  
Juan Carlos Jauregui  
Antxon Rodríguez  
Usoa Urbietta  
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2017ko otsailaren 2ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **EAEko maisu eta maistren kidegora sartzeko hautaketa prozesua deitzen duen Agindu proiektuari buruzkoa.**

### I. AURREKARIAK

Otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, EAEko Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzkoak, bere 16. artikuluan dio lehiaketa-oposaketa izango dela karrerako irakasle funtzionarioak hautatzeko sistema eta lehenik deialdi publikoa egingo dela.

Otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren (zeinaren bidez onartzen baita Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle kidegoetara sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko araudia eta zeinaren bidez arautzen baita aipatu legearen hamazazpigarren xedapen iragankorrean jasotako sartzeko behin-behineko erregimena) 3. artikulua dio administrazio publikoek, dagozkien enplegu eskaintzak onartu ostean, deialdiak egingo dituztela aipatu enplegu eskaintzetan baimendutako plazak hornitzeko, uneoro aplikatzekoak diren Funtzio Publikoko arauak jarraiki.

Bestalde, III. Tituluak sartzeko sistemari buruzko xedapenak jasotzen ditu.

### II. EDUKIA

Agindu proiektuak 2 artikulua eta azken xedapen bat dauzka: lehenak LEPa deitzen du eta 2. artikulua deialdiaren oinarriak onartzen ditu. Azken xedapena errekurtsioak jartzeari buruzkoa da.

Jarraian, 4 eranskinetan jasotzen da, hurrenez hurren, merituen baremoa, gaiak, curriculum eta froga praktikoa.

Lehen titulua sartzeko prozedurari buruzkoa da, eta 11 kapitulutan banatuta dago. Lehen oinarrian jasotzen dira xedea, parte-hartze txandak, plazak eta

aplikatzekoa den araudia. Guztira 740 plaza aterako dira lehiaketara, horietatik %7a erreserbatuko delarik sei espezialitatetan banatutako erreserba txandarako.

Sartzeko prozeduraren gainerako oinarriek izenburu hauek dituzte:

2. Parte hartzeko baldintzak
  3. Parte hartzeko eskaera eta dokumentazioa
  4. Onartutako eta baztertutako hautagaiak
  5. Hautaketa organoak
  6. Oposaketa fasea:
    1. atala: atariko probak
    2. atala: oposaketa faseko proben definizioa eta ezaugarriak
  7. Lehiaketa fasea
  8. Hautaketa prozesua gainditzea
  9. Praktika fasea
  10. Karrerako funtzionarioak
  11. Ordezkapen zerrendetan sartzea
- II. Titulua datu orokorren tratamenduari buruzkoa da.

### III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Agindu proiektu honek aldaketa hauek egiten dizkio 2015eko maisu-maistren LEPa arautu zuen aginduari (2015eko otsailaren 11ko Agindua). Aldaketa horietako batzuk ageri dira jadanik Bigarren Hezkuntzako LEPean (2016ko otsailaren 5eko Agindua).

- Ziurtagiri bat eskatzea egiaztatzeko hautagaia ez dagoela epai irmoz kondenatua sexu askatasunaren eta osotasunaren aurkako delituren batengatik. (2.1.h) oinarria).
- Epaimahaietako eta barematzeko batzordeetako kideen zozketa lurralde mailakoa izango da, espezialitate bakoitzeko epaimahaiak egoitza izango duen tokiko lurralde historikoaren arabera.(5.2.2. oinarria).
- Bigarren probako oposaketa fasearen kalifikazioan, zati bakoitzaren kalifikazioa eta azken kalifikazio haztatua emango dira. (7.3.2. oinarria).
- Proba praktikoari buruzko IV. eranskinaren idazkera berria.

- Merituen baremoan kontuan hartzen da tituluaren espediente akademikoko batez besteko nota, 5.5 baino handiagoa bada. (I. eranskineko I II.1 atala).

Gainera, aldaketa gehiago sartu dira proiektu honetan:

- 10 epaimahai edo gehiagoko espezialitateen kasuan, presidentea ez da epaimahai horietako kide izango, eta Hezkuntza sailburuak izendatuko du. (5.3) oinarria).
- Batzordeek 5 kide baino gehiago izan ahalko dituzte. (5.4) oinarria).
- Epe bat finkatu da (probak hasi baino astebete lehenago, gutxienez) hautaketa-batzordeek probak baloratzeko irizpideak jakinaraz ditzaten. (5.7.2.b) oinarria).
- Amaierako kalifikazioak epaimahaien bidez jakinaraziko dira, eta ez langileen kudeaketako zuzendariaren ebazpen bidez. (7.4) oinarria).
- Curriculumei buruzko III. eranskinean jasota daude indarrean dauden Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako curriculumak.
- Espediente akademikoari ematen zaion puntuaketa aldatu egin da: 3,750 puntutik 3 puntura. Era berean, baremoa argitzeko oharretan are gehiago zehaztu dira zenbait alderdi.

#### **Kontseiluaren iritziz, sartutako aldaketek hobetu egiten dute prozedura.**

**Eskaintako plaza kopurua** Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak mugatzen du, urtero ezartzen dituen birjartze-tasen arabera, eta tasa hori %100ekoa da 2016rako.

Kontseiluak balorazio positiboa egin du 740 plazako eskaintza berri horri buruz, eta, aurrekoetan bezala, Hezkuntza Sailari eskatzen dio jarrai dezala bide horretatik, bitartekotasun-portzentajea murriztu arte.

Euskadiko hezkuntzari buruzko azken txostenean (2013-15), irakasleen egonkortasunari buruzko epigrafeak dio 2014-15 ikasturtean 2.420 bitarteko irakasle izan zirela, eta asko direla 55 urtetik gorako irakasleak, hots, datozen urteetan erretiroa har dezaketanak.

**Horregatik, Kontseiluak planteatu du komenigarria dela Lan Eskaintza Publikoen deialdiak egiten jarraitzea, plantillen egonkortasun balioak muga onargarrietan mantendu ahal izateko, kontuan izanik, batetik, gero eta irakasle gehiago ordezkatu beharko direla, eta bestetik, irakasleek profil berriak behar dituztela.**

**Oposaketa faseko probei dagokienez, Kontseiluak ekarpen hauek egin ditu:**

#### **7.1.1. oinarria.- A zatia: Proba praktikoa**

Gure ustez, espezialitate bakoitzerako proposatzen den ariketak koherentea izan behar du dekretuetan jasotako marko pedagogikoarekin, "hautagaiek prestakuntza zientifikoa dutela eta gaitasun teknikoak menperatzen dituztela" egiaztatzeko erreferentzia gaitasunetan ere oinarrituta egon dadin, eta ez soilik ikuspegi akademikoan. **Horregatik, Kontseiluak proposatzen du IV. eranskinean erreferentzia egitea gaitasunetan oinarritutako ikuspegiari.**

Bestalde, berriro eskatzen du, epaimahaiek hala proposatuta, *web orrian erantsi daitezela kasu praktikoen hainbat adibide, hautagaiek behar adinako bermearrekin prestatu dezaten proba.*

#### **7.1.1.2 oinarria .- B zatia: gai bat garatzea**

- **Kontseiluak proposatzen du c) atala ezabatzea, ez baitago 50 gai baino gehiago dituen espezialitaterik.**
- **II. eranskinean jasotako gaiak dagokienez, Kontseiluak uste du gaiak eguneratu egin behar direla, bat etor daitezzen irakasleen gaitasun profilarrekin (Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen 236/2015 Dekretuaren 30. artikuluan jasota dagoena).**
- ECI/592/2007 Aginduak ezartzen du zeintzuk diren maisu-maistren kidegoko lehen hezkuntzako espezialitatera iristeko, sartzeko eta eskuratzeko gaiak. **Kontseiluak uste du eguneratu egin behar direla zenbait erreferentzia:**
  - 7. gaian, Ingurune natural, sozial eta kulturalaren ezagutzari buruzko arloa esaten denean, ulertu behar da Natur Zientzien eta Gizarte Zientzien arloa dela.
  - 11. gaian, Hiritartasun eta giza eskubideetarako hezkuntza esaten denean, ulertu behar da hiritarrei eta giza eskubideei dagozkien balore sozial eta zibikoak eta gaitasun transbertsalak direla.

**7.1.2. oinarria: Programazio didaktiko bat aurkeztea, eta unitate didaktiko bat prestatu eta ahozko aurkezpena egitea:** nahiz eta 1. atalean esaten den programazio didaktikoak erreferentzia egingo diola Euskadin indarrean dagoen curriculumari, komenigarria litzateke erreferentzia egitea, artikulua horretan bertan edo eranskinean, unitate didaktikoak eta programazioak egiteko gidei, zeintzuk Hezkuntza Sailaren web orrian eskuratu baitaitezke. Gainera, komenigarria litzateke Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum orientatiboari buruzko aipamena sartzea, zeina Hezkuntza Sailaren web orrian baitago, erreferentzia gisa, curriculuma garatu ez duten ikastetxeentzat.

***Azkenik, Kontseiluak berriro aipatu nahi ditu azken bi LEPei dagozkien irizpenen balorazioak, ez direlako aintzat hartu eta, gure ustez, sartzeko prozesua hobetuko luketelako:***

### ***3.1.1 oinarria***

Deialdiak aukera ematen die hautagaiei espezialitate bat baino gehiagotara aurkezteko, baina praktikan eskubide hori mugatzen du, aipatuz espezialitate desberdinetarako frogak batera deitu ahal izango direla:

*“Espezialitate bat baino gehiagotarako eskaera aurkezten bada, hautagaiei ezin zaie bermatu eskatutako espezialitate bakoitzerako probak egin ahal izango dituztenik. Espezialitate desberdinetako frogak batera hasiko balira, ez da itzuliko azterketa egiteko eskubideagatik ordaindutako tasa”.*

***Kontseiluak ulertzen du eskaintzen diren sei espezialitateetarako ez bada ere, bermatu egin beharko litzatekeela Lehen Hezkuntzako espezialitate orokorraren frogak ez dela egingo beste bost espezialitateekin batera.***

***Kontseiluak ulertzen du espezialitate desberdinetako datak bat etorri gero, ordaindutako zenbatekoa itzuli egin beharko litzatekeela, alde aurretik frogatuz deialdietako batera aurkeztu dela.***

- ***5.2.2 oinarria***

Epaimahaien osaeran ezartzen da kideak zozketa bidez izendatuko direla, titular kopuruaren ondorioz zozketarik egin ezin den espezialitateen kasuan izan ezik. Bestalde, seigarren paragrafoan dio gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen ordezkariak orekatua bermatuko dela.

***Kontseiluak uste du zozketa bidez zaila izango dela gizon eta emakumeen ordezkariak orekatua bermatzea, salbu eta horretarako prozedura zehatz bat ezartzen ez bada.***

- ***15 oinarria***

Proba biak ebaluazio positiboarekin gainditu arren plazarik eskuratu ez duten pertsonak ordezkari zerrendetan sartzeko eskubidea dutela jasotzen du. Halako kasuetan dauden pertsonak zerrenda batean egongo dira, hautaketa prozesuan eskuratutako azken puntuaketaren arabera ordenatuta, eta, ondoren, hautaketa prozesutik zetorren zerrenda bereizi horretako pertsonak zerrenda orokorrean sartuko dira, ordezkariak egiteko hautagai zerrendaren urteroko birbarematze prozesuaren baitan.

**Kontseiluak uste du urteroko birbarematze prozesuan kontuan har litekeela**

**baita ere oposaketa-fasean eskuratutako puntuaketa, tituluaren espediente akademikoko batez besteko nota ere kontuan hartzen delako.**

- *I. Eranskina*

Deialdi honetako merituen balorazioan funtsean 276/2007 Errege Dekretuan ezarritakoa jasotzen da, eta horregatik, irakaskuntza eta prestakuntza arloko esperientzia aztertzean irakaskuntza ofizialetan lortutako merituen bakarrik hartzen ditu kontuan.

Horregatik, baremoaren atal horretan bakarrik hartzen dira kontuan hizkuntza eskola ofizialetako ziurtagiriak, bai indarrean daudenak, bai haien baliokideak. Merituen atalean, berriz, 73/2012 Dekretuaren eranskinean jasotako ziurtagiri guztiak onartzen dira.

Prestakuntza Akademikoa atalean 5 puntu lor daitezke gehienez, eta Beste merituen batzuk atalean, berriz, 2 bakarrik. Beraz, organismo desberdinek emandako ziurtagiriek termino absolutuetan balio bera izan arren, termino erlatiboetan, baliteke "Beste merituen batzuk" ataleko balioa txikiagoa izatea, atal horretan erraza baita gehienezko 2 puntuak lortzea etengabeko prestakuntza ikastaroen bitartez. "Prestakuntza Akademikoa" atalean, aldiz, zailagoa da gehienezko 5 puntuak lortzea, beste titulazio batzuk behar direlako. Bestalde, Hizkuntza Eskola Ofizialetako C2 maila ez da existitzen gure erkidegoan, eta 73/2012 Dekretuaren eranskinean jaso ere ez da egiten.

*Kontseiluak uste du oinarrizko araudiak baldintzatutako kontu bat dela, baina, hala ere, berriro landu beharko litzatekeela prestakuntza akademikoaren atalean kontuan har daitezkeen dekretu horretan jasotako beste organismo batzuek emandako titulu eta ziurtagiriak.*

*Beste alde batetik, eta dekretu honi ez dagokion arren, arauaren azken xedapenean aurreikusi bezala, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskina eguneratu egin behar da C2 mailari dagokionez, zeren ez baita jasotzen hizkuntza eskola ofizialetako C2 mailaren baliozkotasuna aipatzen diren hizkuntzetarako (ingeleza, frantsesa eta alemana).*

Azkenik, Kontseiluak berriro eskatu nahi du aurreko LEPari buruzko 15/03 Irizpenean eskatu zuena, hau da, kontuan hartu daitezela bestelako hezkuntza-praktika batzuk, esaterako, arautu gabeko mailetan izandako esperientzia edo hezkuntza ez-formalaren esparruan garatutako jarduerak, bai lankidetzak eta boluntariorik lanetan, bai jardueretan, eta bai aisialdiko hezkuntza-jardueretan, Hezkuntza Sailak homologatutako titulazioen arabera.

*Horregatik, Kontseiluak Hezkuntza Sailari eskatzen dio kontuan har dezala arautu gabeko mailetan, lankidetzak eta boluntariorik proiektuetan, eta*

*lankidetzaz, aisialdi eta denbora libreko jardueretan lortutako esperientzia,  
Beste Meritu Batzuk izeneko I. Eranskinen III. atalaren barruan.*

*Zentzu horretan, alde aurretiko irakaskuntza esperientziari buruzko I. atalari  
eginiko oharretan, atal berri bat erantsi da baloratuko ez diren alderdien artean:  
“prestakuntza-jarduera osagarrietako begirale gisa garatutako jarduerak”.*

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2017ko otsailaren 2an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

JARDUNEKO PRESIDENTEA

Sin.: Isabel Kapanaga Ruiz de Loizaga

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA